



## **BALDINTZA-AGIRIA, ARABAKO BATZAR NAGUSIEN JABETZAKO HAINBAT MATERIAL INFORMATIKO DOAN BESTERENTZEKO**

### **1.- XEDEA**

Espediente honen xedea da hautatzea zer erakundek eskuratuko duten Arabako Batzar Nagusien jabetzako material informatikoa, zerbitzu publikorako ezgai deklaratu dena. Horretarako, erakunde horiek baldintza-agiri honen laugarren puntuaren ezarritako eskakizunak bete beharko dituzte, eta, aldez aurretik, eskaera garaiz eta eraz egin beharko dute.

### **2. PREZIOA**

Ondasunak doan besterenduko dira eta erakunde adjudikaziodunek ez diete inolako kontraprestaziorik eman behar Arabako Batzar Nagusiei.

### **3- PROZEDURA**

#### **Lehena.- Gaitasuna**

Era guztietako kontratueterako eta, bereziki, dohaintzak jasotzeko gaitasun orokorrari buruz indarrean dagoen araudiaren arabera kontratatzeko gaitasuna duten fundazio, elkarte, irabazi-asmorik gabeko entitate eta tokiko erakunde guztiek har dezakete parte prozeduran.

Ezin dute prozeduran parte hartu Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikuluan ezarritako Administrazioarekin kontratatzeko debekuren bat dutenek.

#### **Bigarrena.- Dokumentazioa eta aurkezteko modua.**

Prozedura honetan parte hartu nahi duten erakundeek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute, Arabako Batzar Nagusietako Mahaiari zuzenduta:

- Oinarri hauei atxikitako eskaera-ereduaren arabeko eskabidea (ATXIKITAKO 1 EREDUA). Bertan, erantzukizunpeko adierazpen bat sartuko da, non adieraziko baita eskatutako gaitasun-baldintzak betetzen direla, erakundea ez dagoela kontratatzeko debekuren baten eraginpean, adjudikatutako ondasunak beren xede soziala osatzen duten helburueterako baino ez direla erabiliko eta posta elektronikoa erabiltzeko baimena ematen dela jakinarazpenak egiteko.
- Eskuratu nahi duten ekipo mota eta kopurua jasotzen duen eskabidea (ATXIKITAKO 2 EREDUA).

Aurkezteko modua, ahal dela, jakinarazpen elektronikoki bidez egingo da [ciudadania@jiggalava.eus](mailto:ciudadania@jiggalava.eus) helbidera, dokumentuak elektronikoki sinatuta edo, bestela, sinatuta eta eskaneatuta. Ezinezkoa bada, aurrez aurre aurkeztu ahal izango dira Arabako Batzar Nagusien Erregistro Orokorrean (astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 15:00etara; Vicente Goikoetxea kalea 2, Vitoria-Gasteiz)



**Prozedura amaitzen denean eta hautatzen diren erakundeek soilik** bidali beharko dute honako dokumentazio hau, materiala behin betiko entregatu aurretik.

- Eskaera aurkeztu duen pertsonaren NANaren edo pasaportearen fotokopia, indarrean dagoena, eta haren ordezkari-ahala.
- Erakunde eskatzailearen dagokion erregistroko inskripzioa.
- Erakundearen konpromisoa, non berariaz adieraziko baita, aurreikusitako zerbitzua emateari uzten diotenean, behar bezala baimendutako birziklatze-zentro batera eramango dituztela ekipoak.

### **Hirugarrena.- Argitalpena**

Prozedura honen iragarkia ALHAOn argitaratuko da, bai eta Arabako Batzar Nagusien web instituzionalaren kontratatzailearen profilean.

### **Laugarrena.- Eskabideak aurkezteko epea**

Prozedura honen xede den ekiporen bat doan eskuratu nahi duten erakundeek 15 egun balioduneko epea izango dute eskabideak aurkezteko, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

### **Bosgarrena.- Ekipoak adjudikatzea.**

Eskabideak aurkezteko epea igaro ondoren, Idazkaritza Nagusiko zerbitzuek eskatzaileek aurkeztutako dokumentazioa aztertuko dute lehenengo.

Eskabideren bat zabaltzea edo zuzentzea beharrezkotzat jotzen bada, erakunde interesdunari hamar eguneko epea emango zaio egin duen hutsa konpontzeko edo behar diren dokumentuak aurkezteko, eta jakinaraziko zaio hala egiten ez badu ulertuko dela bere eskabidean atzera egin duela.

Baldintza-agiri honen arabera prozeduran parte hartzeko ezarritako baldintzak betetzen dituzten erakundeak hautatu ondoren, irizpide hauen arabera jokatu da:

- Nahikoa ekipo badago, zuzenean adjudikatuko dira erakundeen artean.
- Eskabideak eskuragarri dauden ekipoak baino gehiago balira, kontuan hartuko da erakunderen bati ekiporen bat adjudikatu ote zitzaien 2017an egindako doako besterentze-prozeduran, eta nahikoa ekiporik balego aurreko adjudikaziodunak kanpoan utzita, zuzeneko adjudikazioa egingo da. Nahikoa ekiporik ez balego, zozketa egingo da erakunde eskatzaileen artean (2017an adjudikaziodun izan zirenak kanpoan utzita).
- Ekipoak eskatzaileen artean banatu ondoren ekiporik geratuko balitz, zozketa bat egingo litzateke 2017ko prozeduran adjudikaziodun izan zirenen artean.

Zozketaren bat egin behar izanez gero, Mahaiari proposamen zehatza egingo zaio zozketa egiteko.



Zozketa egin ondoren, edo zozketarik egitea beharrezkoa ez bada, Idazkaritza Nagusiak adjudikazio-proposamena igorriko dio Mahaiari. Adjudikatzeko erabakia prozeduran parte hartzen duten erakunde guztiei jakinaraziko zaie, eta Arabako Batzar Nagusien webgunean argitaratuko da.

**Seigarrena.- Espedientea ebazteko epea.**

Espedientea ebazteko epea gehienez lau hilabetekoa izango da.

**4.- ERAKUNDE ADJUDIKAZIODUNEN BETEBEHARRAK.**

Erakunde eskatzaileek, adjudikazioaren jakinarazpena jaso ondoren, adjudikatutako ekipoak jaso beharko dituzte, gehienez hilabeteko epean. Horretarako, harremanetan jarri beharko dira aurretiaz Idazkaritza Nagusiarekin: [tecnicoinformatica@jgggalava.eus](mailto:tecnicoinformatica@jgggalava.eus) edo telefono honetan: 945-125120/125114.

Ajudikatutako ekipoak/elementuak jasotzeko orduan, emate-aktaren bi kopia izenpetu beharko dira, eta aleetako bat Idazkaritza Nagusiaren esku geratuko da.

Adjudikazioaren ondorioz egon daitezkeen gastu eta zerga guztiak erakunde adjudikaziodunek ordaindu beharko dituzte, ekipoak jasotzeko eta garraiatzeko gastuak barne. Arabako Batzar Nagusiei ezin zaie inolako zenbatekorik eskatu kontzeptu horrengatik.

**5.- ERANTZUKIZUNA**

Prozedura honen xede diren ondasunak dauden egoeran besterenduko dira, eta adjudikaziodunek egoera horren berri badaukatela joko da. Hartara, alderdi emailea ez da izango ezkutuko akats edo huts posibleen erantzule.

**6.- ARAUBIDE JURIDIKOA**

Prozedura hau, prestatzeari eta adjudikatzeari dagokionez, baldintza juridiko-ekonomikoen agiri honen arabera arautuko da, eta horretan aurreikusi ez den guztirako, aplikagarria den araudiaren arabera. Doako besterentzeak gauzatu ondoren, araudi zibilean ezarritako ondorioak izango dituzte.



## ARABAKO BATZAR NAGUSIETAKO MAHAIARI / A LA MESA DE LAS JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

### ESKARIA / INSTANCIA

\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_, jaunak/andreak,  
\_\_\_\_\_, NAN  
zenbakidunak,-  
\_\_\_\_\_, (e)n egoitza duen  
\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_, erakundearen izenean eta  
haren ordezkari gisa,

D./Dña.

\_\_\_\_\_, con D.N.I.  
\_\_\_\_\_, en nombre y  
representación de  
\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_, con domicilio  
social en  
\_\_\_\_\_.

### ESKATZEN DU

Interesduntzat hartua izan dadila, Arabako Batzar Nagusiak onartuta, Mahaiaren \*\*\*\*\* erabakiaren bidez, dohainik besterentzeko onartutako prozeduran, eta

### AITORTZEN DU

1.- Gaitasun eskakizunak betetzen dituela eta ez duela kontratatzeko debeku bakar bat ere, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 71. artikuluan sektore publikoarekin kontratatzeko zerrendaturiko debekuen artetik.

2.- Konpromisoa hartzen duela adjudikatzen zaion ekipamendua bere xedeekin erabiltzeko, merkataritza helburuekin erabiltzeko aukera erabat baztertuta.

3.- Jakinarazpenetarako, honako helbide elektronikoa ematen duela:

\_\_\_\_\_, (e)n, 2024ko \_\_\_\_\_aren \_\_\_\_ (e)(a)n

### SOLICITA

Se le tenga como interesado/a en la participación en el procedimiento de enajenación gratuita aprobado por las Juntas Generales de Alava, mediante Acuerdo de la Mesa de fecha \*\*\*\*\* y

### DECLARA

1º. Que cumple los requisitos de capacidad y no está incurso/a en ninguna de las prohibiciones para contratar con el sector público enumeradas en el artículo 71 de la Ley de Contratos del Sector Público.

2º. Que se compromete a utilizar el equipamiento que se le adjudique para sus fines, no dedicándolo en ningún caso a fines comerciales.

3º. Que autoriza a efectos de notificaciones el correo electrónico que se señala a continuación:

En \_\_\_\_\_ a \_\_ de \_\_\_\_\_ de 2024.

Sinadura/Firma



**ARABAKO BATZAR NAGUSIETAKO MAHAIARI / A LA MESA DE LAS JUNTAS  
GENERALES DE ÁLAVA**

\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_, jaunak/andreak,  
\_\_\_\_\_, NAN  
zenbakidunak,-  
\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_(e)n egoitza duen  
\_\_\_\_\_  
erakundearen izenean eta haren ordezkari  
gisa,

D./Dña.

\_\_\_\_\_, con D.N.I.  
\_\_\_\_\_, en nombre y  
representación de  
\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_, con domicilio  
social en  
\_\_\_\_\_

ADIERAZTEN DU

MANIFIESTA

Ekipo hauek eskatzen dituela:

**ERAMANGARRIAK** (adierazi eskatutako kopurua):

- 500 GBko disko gogorra; ezinezkoa bada 320 GBkoa; 12,5"ko pantaila  17"ko pantaila
- 320 GBko disko gogorra; pantaila, 17"koa; ezinezkoa bada, 320 GBkoa eta pantaila 12,5"koa
- 320 GBko disko gogorra; pantaila, 12,5"koa

**MAHAI GAINEKOA** (adierazi eskatutako kopurua):

- Intel I5' prozesadorea; ezinezkoa bada, Intel Core 2' 500 GB  160 GB

**MONITOREA**

**ESKANERRA**

Que solicitan el siguiente equipamiento:

**PORTÁTILES** (indicar cantidad solicitada):

- Disco duro 500 GB, si no es posible de 320 GB pantalla 12,5"  pantalla 17"
- Disco duro 320 GB pantalla 17", si no es posible de 320 GB pantalla 12,5"
- Disco duro 320 GB pantalla 12,5"

**SOBREMESA** (indicar cantidad solicitada):

- Procesador Intel I5', si no es posible procesador Intel Core 2' 500 GB  160 GB

**MONITOR**

**ESCANER**

\_\_\_\_\_(e)n, 2024ko \_\_\_\_\_aren \_\_\_\_ (e)(a)n

En \_\_\_\_\_ a \_\_\_\_ de \_\_\_\_\_ de 2024

Sinadura/Firma